

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

Lanbide Heziketarako Lankidetz- Proposamena

2024-2025 IKASTURTEA

MUGARIK GABEKO EKONOMILARIAK

AURKIBIDEA

SARRERA

IRAKASLEEI LAGUNTZEN DIEGU

Laguntza-zerbitzua

Online ikastaroa irakasleentzat

El Nido: plataforma birtuala

Dosierra: Unibertsitate aurreko hezkuntza

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Unitate didaktikoak

ESScape Box jokoa

Ikus-entzunezko baliabideak

Ekonomiako ipuinak

Erronken gida

Baliabide gehiago

JARDUERA PROPOSAMENAK

LABURPENA ETA KONTAKTUA

3

4

5

7

8

9

10

11

15

16

17

18

19

21

26





SARRERA

BIDEZKO EKONOMIA BATENGATIK LANEAN


Mugarik gabeko Ekonomilariak erakundean hainbat urte daramatzagu LHko zentroetan lanean gizarte-eredu bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko helburuarekin. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntzatik abiatuta lan egitea, teoria eta praxia Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin batzen dituzten espazioak sortuz, eredu gauzagarria baita eta bizitzaren iraunkortasuna bilatzen baitu ekonomiaren azken helburu gisa.

Urte hauetan irakasleekin egindako lanari eta ezarritako lankidetzari esker, gure lana gelan garatzeko eduki, espazio eta formatu egokienak identifikatu ahal izan ditugu, malgutasuna eta egokitzapena eskainiz ikasleei eta irakasleei, unean uneko osasun-egoeraren arabera.

Formatu presentziala lehenesten badugu ere, jarraian aurkezten ditugun hainbat proposamen **formatu birtualean edo erdipresentzialean** egin ahal izango dira, **ikasgaiak eta dinamikak egokituz, ikuspegi praktiko, parte-hartzaile eta eraldatzailea** izaten jarrai dezaten.



IRAKASLEEI LAGUNTZEN DIEGU



IRAKASLEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

Mugarik gabeko Ekonomialariok Euskadin Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegitik lan egiten dugu. Gure ustez, **hezkuntza ikasleen eta irakasleen eraldaketa-prozesu kolektiboa da**, pentsamendu kritikorako gaitasuna eta haren transmisioa sustatzen dituzten tresnetatik abiatuta.

Horregatik, ikasturte honetan, irakasleei eduki kritikoak eta metodologia parte-hartzaileak eskuratzen lagunduko diegu, **IRAKASLE INTERESATUEI BANAKAKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA** eskainiz.

Zerbitzu honen bidez, EsF-ren eta gure kide sareen (Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta REAS Euskadi) baliabideak eta horiek ikasgelan aplikatzeko metodologiak eskainiko ditugu.

ZERBITZUAREN XEHETASUNAK

AHOLKULARITZA

Ikasgelako beharren eta irakaslearen testuinguruaren hasierako ebaluazioa.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Ikasleekin lan egiteko kontzeptuak eta jarduera praktikoak azalduta.

JARRAIPENA

Etengabeko laguntza ikasturtean zehar. Ikaskuntzen sistematizazioa eta emandako materialaren berrikuspena.

Informazio guztia ecosfron.euskadi@ecosfron.org
helbidera idatziz edo 722 371 633 telefonora deituz.

EKONOMIAKO IRAKASLE IKASTAROA

**HIRUGARREN
EDIZIOA**

**#KrisiariAurreEgiten:
bizitza erdigunean
jartzen duen
ekonomia baten alde**



 Noiz: 2024ko irailaren 13tik azaroaren 13ra.

 Non: online

 Prezioa: dohain

 Iraupena: 20 ordu

 Kredituak: 1 ECTS

 5 Modulu, bakoitzean: bideoak, atal teoriko laburrak, ikasgelarako proposamenak eta ezagutzak ebaluatzeko testak.

+  Informazio gehiago, egitaraua izen-ematea:

<https://bit.ly/45xOGlh>

 Ikastaroa gaztelaniaz emango da.



SAKATU IRUDIAN SARTZEKO!

EL NIDO: PLATAFORMA BIRTUALA

El Nido aurkezten dizugu, irakasleak, ikasleak, tokiko garapeneko eragileak, ekintzaileak eta bizitza erdigunean jarriko duen ekonomian interesa duten erakundeak harremanetan jartzeko gure plataforma birtuala.



MgE DOSSIERRA IRAKASKUNTZA

Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: Irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako

Dosier honetan hezkuntzaren arloan egin berri den legegintza-erreformari eta hezkuntza plurala, inklusiboa eta kritikoa lortzeko bideari buruz hausnartzen dugu.



GAZTELANIAZko bertsioa



SAKATU IRUDIAN SARTZEKO!

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

WEBGUNEAN ONLINE DOHAIN DESKARGATZEKO AUKERA
EsF-KO TALDEARI **AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**
ESKATZEKO AUKERA

ecosfron.euskadi@ecosfron.org helbidera idazten
edo 722 371 633 zenbakira deitzen

3 UNITATE DIDAKTIKO DITUEN GIDA:

- 1.- Enpresa eta giza eskubideak
- 2.- ESStik ekiten
- 3.- Genero-ikuspegidun komunikazioa



Gida hau ikasgeletan erabil daiteke, proposatzen diren baliabideak ahalik eta modurik aproposenean egokituz MgEk lantzen dituen edukiak material gisa sartzeko.

Unitate bakoitzak edukien azalpena, horiek bereganatzeko dinamikak eta sakontzeko bibliografia ditu. Bakoitza ordubeteko 3 saiotan egiteko pentsatuta dago.



BESTE UNITATE DIDAKTIKO BATZUK

FINANTZA ETIKO ETA ALTERNATIBOETAN HEZTEKO EUSKAL SAREAK
(FINANTZAZ HARATAGO) EGINDAKOAK



KLIKATU IRUDIAN SARTZEKO!

LASTER UNITATE DIDAKTIKO BERRIAK:

Ia prest daude... Azken ukituak besterik ez zaizkigu
geratzen!

**EKONOMIA ETA
FEMINISMOA ETA
LGBTI+ ASKAPENA
INTERSEKZIONATZEN**



**EKONOMIA ZIRKULAR
ERALDATZAILEA**

UNITATE DIDAKTIKOAK IKASLEETATIK IKASLEENTZAT

UPV/EHU-KO IRAKASLEEN MASTERREKO IKASLEEK EGINDAKOAK



EsF Euskadik urteak daramatza UPV/EHUko Irakasleen Masterrarekin lanean, ikasleei gaurkotasun sozioekonomikoko gaiak proposatzen, ikuspegi kritiko batetik. Gai horietatik abiatuta, ikasleek euskarazko unitate didaktikoak egiten dituzte Lanbide Heziketako ikasleentzat.



KLIKATU IRUDIAN SARTZEKO!

«ESScape Box» JOKOA

EZAGUTU GURE

ESScape jolasa



Finantza etikoen inguruan
ikasteko joko dibertigarria.



Bost kutxek osatzen dute, erraz
eraman ahal izateko.



15 urteko gazteentzat.



50 minutu irauten du eta 3-5
laguneko taldeetan jolasten da.

Zure hezkuntza zentroan frogatu nahi duzu?
Idatziguzu: info@finantzazharatago.org



Jokoan oinarritutako ikaskuntza
helburu duen gamifikazio-
baliabidea.

Hainbat asmakizunen bidez, parte-
hartzaileek errealitate
desberdinak ezagutuko dituzte,
eta finantza etikoen eta ekonomia
solidarioaren inpaktu
eraldatzailea ezagutuko dute.

5 kutxa eramangarritan diseinatua,
erraz erabili ahal izateko eta
ikastetxeetara sartzeko.



KLIKATU IRUDIAN SARTZEKO!

BIDEOAK

ERRENTAREN FLUXU ZIRKULARRA Nor dago kanpoan?

EUSKERA

GAZTELANIA



Ekonomia irakasten dugunean, ikasgelan erakusten dugun lehen gauzetako bat "errentaren fluxu zirkularra" da, merkatuko ekonomia batek nola funtzionatzen duen modu sinplifikatuan erakusten digun eskema. Dena bat dator gurpil honetan, eredu perfektua da, baina zer ezkutatzen du diagrama honek?



#BestelakoFinantzak: Finantza etiko eta solidarioak

EUSKERA

GAZTELANIA

Finantza-sistema aztertzean, ez da hitz egiten gizarte- eta ingurumen-eremuan dituen eraginei buruz, ezta gizarte- eta ingurumen-inpaktu horiek positiboak izatearen alde egiten duten finantza etiko eta solidarioei buruz ere.

EKONOMIAKO IPUINAK

BESTE SISTEMA BAT IRUDIKATZEKO KONTAKIZUNAK



Ekonomiari buruzko ipuinen bidez, ikasleek beste sistema ekonomiko bat irudikatea espero dugu, pertsonen duintasuna eta planetaren iraunkortasuna irabaziaren aurretik jarriko dituen, ekitatearen, berdintasunaren, justizia sozialaren eta Giza Eskubideen alde egingo duena.

Ipuinak 5 bloketan antolatzen dira. Multzo bakoitzean 3 ipuin labur eta luze bat daude. Guztiek dituzte entzuteko audio bat, ilustrazio bat eta hausnarketarako galderak, baita irakasleentzako zati teorikorako esteka bat ere.



KLIKATU IRUDIAN SARTZEKO!


ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZAKO GIDA

Erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzaren metodologia aplikatzeko LHko irakasleak orientatu nahi dituen tresna erraza, laburra eta praktikoa.

Bertan, esku-hartze mota horren metodologia eta ESSren aplikazioa aurki daitezke; planteatutako erronka nagusien deskribapen laburtua; ikasleek erronka horiei erantzuteko egindako proposamenen adibide diren lanak; eta EsFen eta ikasleen balorazioak eta zenbait ondorio.




BALIABIDE GEHIAGO



LHko eta BHIko irakasleentzako materialen biltegia

Irakasleekin egindako lankidetzaren ondorioz, Ekonomiaren irakaskuntzaren ikuspegi kritikoa zabaltzeko hezkuntza-materialak sortu ditugu.



La Otra Actualidad Kanala Filmin-en
Arazo ekonomiko eta sozialei heltzen dieten eta batzuetan ezezagunak diren arazo eta irtenbideez jabetzen laguntzen duten filmen bilketa.



KLIKATU IRUDIAN SARTZEKO!

BALIABIDE GEHIAGO



RedEFES

Irakasleen eta finantza etikoko eta hezkuntza eraldatzaileko erakundeen arteko topagunea, finantza-hezkuntza etikoko baliabideak eta esperientziak eskaintzen dituena.



Finantzaz Haratago

Finantza Etiko eta Alternatiboetan Hezteko Euskal Sarea. Sare honen helburua da Euskadin eta oro har, modu horizontal eta parte-hartzailean, finantza etiko eta alternatiboetan hezteak sustatzea eta zabaltzea.





EKINTZA PROPOSAMENAK

PRESTAKUNTZA-SAIOAK


2 SAIO GAI BAKOITZEKO:

Irakasleekin batera, Mugarik gabeko Ekonomilariak (MgE) intereseko gai bati buruzko 2 saio proposatuko ditu. Lehen saioa MgEko langileek emango dute, eta hurrengoa irakasleek landuko dute, MgEk proposatutako materialak eta dinamikak oinarri hartuta.

Zeharkako edukiak "Enpresa eta ekimen ekintzailea" eta "Iraunkortasuna" moduluetarako eta Administrazioa eta Kudeaketa eta Merkataritza eta Marketina lanbide-arloetako prestakuntza-zikloetarako, besteak beste.

- PROPOSATUTAKO GAIK: Ekonomia feminista, Ekonomia Zirkularra, Ekintzailetza Ekonomia Sozial eta Solidariotik, Finantza etikoak eta finantzaketa alternatiboa, Justizia fiskala, Enpresa Arduratsua eta Giza Eskubideak, Komunikazioa genero-ikuspegiarekin, 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)

ERRONKA: EKINTZAIETZA LEHIAKETA



"ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA" MODULUAREN BARRUAN, NEGOZIO BAT DISEINATZEKO ERRONKA PLANTEATZEN DIEGU IKASLEEI, IRIZPIDE SOZIAL, FEMINISTA ETA INGURUMENETAKOAK DITUEN CANVAS BATETIK ABIATUTA.

MgEk ikasleek egindako proiektuaren memoria-fitxa batetik abiatuta baloratuko ditu proposamenak. Horien artean aukeratuko du ekonomia bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen gehien laguntzen duen enpresa-ekimena.



EKINTZAILEAREN EGUNA

LHko zentroetan egiten den ekintzailearen egunean, emakume eta gazte migrante ekintzaileak gonbidatzen ditugu, ekintzailetzari buruzko errealitate desberdinak hurbiltzeko, kulturen arteko bizikidetza sustatzeko eta gizartean errotutako estereotipoak apurtzeko.

IKUSI 2021-2022 IKASTURTEKO ADIBIDEAK



PRESTAKUNTZA-SAIOAK

METODOLOGIA PARTE-HARTZAILEEN ERABILERA SUSTATZEN DUGU, IKASLEEN EDUKIAK ETA ESPIRITU KRITIKOA BARNERATZEN LAGUNTZEKO, IKASLEEN BEHARRETARA EGOKITUZ

HAUEK DIRA ERABILTZEN DITUGUN TRESNA DIGITAL BATZUK:

 **Mentimeter**

Parte-hartze aktiboa eta ikasleekiko interakzioa, galderak denbora errealean botatzearen bidez

 **Jamboard**

Arbel digital interaktibo baten bidez, jarduera baten funtsezko ekarpenak eta ideiak biltzea

 **padlet**

Mota guztietako edukiak igo, antolatu eta partekatzea, lankidetzarako espazio digital baten bidez

Animatu gurekin harremanetan jartzera!

Lanbide Heziketako zentro bateko irakaslea bazara, ez izan zalantzarik MgE-ekin harremanetan jartzeko, lankidetzarako modurik onena azter dezagun

- GURE **BALIABIDE DIDAKTIKOAK** ERABILIZ
- **SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK** EMATEN
- **EKINTZAIETZA-LEHIAKETA** EGINEZ
- **EKINTZAILE BAT** IKASGELARA GONBIDATUZ
- **TALDEKO PROIEKTUAK** GARATZEN

ecosfron.euskadi@ecosfron.org

722 371 633

<https://ecosfron.org/euskadi/>

Eman izena LH eta BHI
irakasleentzako
buletina jasotzeko

